

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2011ko irailaren 30a. VIII. urtea. 2.282. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Xabier Artola Idazlea

«Inoiz ez zait burutik pasa nobela bat idaztea; ipuinak asko gustatzen zaizkit»

Alkizan bizi den idazleak 'Argi-itzalen neurria' liburua argitaratu du, Elkar argitaletxearekin **5**



Ipuin lehiaketetara aurkeztu dituen lanak argitaratu ditu Artolak. E. MAIZ



E. MAIZ

→ **San Migel egunak festari jarraipena eman dio.** Festei izena ematen dien santuaren eguna ospatu zuten atzo Iruran eta Aldaban. Bietan haiketakoa egin zuten eguerdian, eta Iruran dantzariak girotu zuten goiza eta arratsalde. Oraindik asteburua geratzen da sanmielei agur esateko. **3**

Bestelako gizarte ereduak proposatuko dute krisialditik ateratzeko

Auzolan Topaketak egingo dituzte Usurbilen gaurtik igandera bitarte, 150 lagun en parte-hartzearekin; Mikel Ozaita ibartarra aritu da antolatzaile lanetan **7**

Abraham Olano Vueltako zuzendari teknikoa

«Astean bi edo hiru egunetan ateratzen gara errepideak nola dauden ikustera»

Bederatzi urte daramatza Espainiako Itzulia prestatzen Anoetako txirrindulari ohiak **2**

Jone Gorostazu eta Olatz Etxeberria
Antzezleak

«Benetan gertatu edo egin ditugun gauzak kontatzen ditugu»

Benestegiko antzerki taldeko kideek emanaldia eskainiko dute 22:30ean

Elkarriketa **5**



**LAKET
ETA
ATILA Y LOS UNOS**

KONTZERTUAK

URRIAK 1 • LARUNBATA • 23:00 • IRURAN



HITZA

Abraham Olano • Vueltako zuzendari teknikoa

2002. urtean utzi zuen bizikleta; ez, ordea, txirrindularitza mundua. Pasa diren bederatzia urte hauetan, Espainiako Itzulia prestatzea izan da bere lana, Vueltako zuzendari tekniko bezala.

«Vueltan sortu den polemika, gaia politizatuta bakarrik gerta daiteke»

Itzea Urkizu

Abraham Olano (Anoeta, 1970) Espainiako Itzuliko zuzendari tekniko da gaur egun. Txirrindularitzaren beste aurpegi honen inguruan aritu da **TOLOSALDEKO ETA LETZALDEKO HITZAREKIN**.

Espainiako Vuelta duela bizpahiru aste amaitu zen. Zuzendari tekniko bezala, zein balorazio egingo zenuke aurten?

Oso ona. Harrera ona izan du, eta azkeneko egunera arte ez genekien nork irabaziko zuen. Emozio hori azken egunera arte izatea oso ona dela uste dut.

Zu, txirrindulari izatetik nola iritsi zinen gaur egun daukazun lan hau egitera?

Normalean, urtero hainbat gidari hartzen ditugu Vueltarako, txirrindulariak izandakoak. Ni gidari bezala sartu nintzen, eta nola lan egiten nuen gustatu zitzaizen, eta nire izateko modua ere bai. Berarekin enpresan sartzeko deitu zidaten, eta handik bi urtera zuzendari tekniko izezndatu ninduten.

Eta zein izaten da, urte osoan zehar, zure eguneroko lana?

Normalean, astean bi edo hiru

egunetan ateratzen gara errepideak eta nola dauden, zein egoeratan dauden, ikustera. Itzulia nondik joango den erabaki behar izaten dugu, eta horretarako, bideen egoera ezagutu behar dugu. Era berean, txirrindularitza bezalako kirol bat egiteko bide aproposak bilatu behar izaten ditugu; autopistatik ez joatearren, bide estuak eta goerak bereziki bilatzen ditugu, gehienbat etapa amaieretan emozio puntu hori egon dadin. Eta horrez gain, udalekin bilerak egiten ditugu, euren nahiek eta gure aurreikuspenek bat egin dezaten.

Txirrindulariek egin beharreko ibilideak aurrez frogatzen al dituzu zerorrek?

Batenbat egin izan du, baina normalean ez. Ohikoena dena kotxez egitea izaten da.

Txirrindularitza profesionala utziz zenuen geroztik urte batzuk pasatu diren arren, arraroa egiten al da lasterketak autotik jarraitzea?

Lasai dihoazenean bai, pentsatzen dut zergatik ez ote noan bizikleta gainean. Baina azkar edo maldan gora joaten direnean, kotxean asko ere hobeto joaten naiz! **Aurten polemika sortu zen Vuelta-**

ren inguruan, hainbat urteren ondoren, ibilbidea Euskal Herrikit berriro pasako zelako. Zein da zure iritzia honen inguruan?

Polemika, gaia politizatzen baldin badute bakarrik, ez? Kirolaren ikuspegitik begiratu gero, uste dut ez dagoela inongo polemikarik. Ikusi dugu errepideetara jendea nola agertu den itzulia ikustera eta txirrindulariak animatzera; espektakulo bat ikustera, azken finean.

Euskal txirrindulariek denboraldi ona osatu dute aurten. Zein etorkizun ikusten diezu? Afizionatu mailan etorkizun ona duen norbait ikusten al duzu?

Afizionatu maila jarraitzen du, baina askotan, afizionatu mailan ondo ibiltzen direnek, ez dute hain maila ona ematen profesionaletan. Dena den, badago gero eta hobeto ari den gazteria. Esperantza ematen digute, eta ziur euskal txirrindularitza hori aurrean izango dela.

• **tolosa@hitza.info**

Gutunak

Elkartasuna Bandresek

Hirurogeita bi urterekin alde egin digu bat-batean Antxon Bandres Zaraguetak. Hamaika kontu saio eginga naiz berarekin. Argia, asko jakina, kontu esalea, alaia, mendizalea eta etxezalea, ona eta laguntzailea zen Antxon. Zenbat kontu, solas, irizpide jator eta baikor bere alboan.

Tolosako Asuncion Klinikako erradiologoa gurena. Baina medikuntzako lan ugarietz gainera, herriko dinamikan sarturik zegoen horietakoa gurena Bandres: kultura, politika eta folklore arloko munduan, beti baikor eta zerbitzari.

Guztien eskubideak babesten eta aldeztu zituen gurena. Inola ere ez, alde batekoen eskubideak bakarrik aldeztu eta alde bateko bidegabekeriak bakarrik gaitzesten dituztenekin batera. Umeen itzala ere beti berekin zeraman horietakoa gurena, Olentzero hurbila eta maitakorra.

Lagun honek alde egin digu. Zeruera ere ederragoa eta alaia goa da, noski, geroztik. Tolosa-

ko Santa Maria parrokiaren hura jendetza bere hiletan. Beste askorekin batera agertu ahal izan nion nire elkartasuna.

Antxon Bandresen itzala zuen, errespetua. Maitatua eta maitagarria zen; besteei begirunez zielako, batez ere.

Historia eta antropologian jakituna gurena, historiaren arakatzaile zintzoa, eta 36ko guda zibileko hildako ezezagunen memoria bilaketan lan asko egin zuena. Hau bezalako gizonek elkartzen gaituzte oraindik, euskaldun sakabanatuok. Badugu zer jasoa eta ikasial!

Ostegun eguerdian Tolosako kanposantuko hilerriaren lagundu diot, nire bihotzean txoko bat beti izan dezan.

Aupada handi bat Marijo eta Kristian. Ez etsi eta beti aurrera. Badakit une zaila eta latza dela, baina biharra egunsentia ekarriko du, nahiz eta ekaizta eta iluna egon. Izan itxaropen. Izan bihotz (*Requiescat in pace*: bakean dezala atsedean).

■ **Joxe Agustin Arrieta**

ABEGIk 25 urte beteko ditu etxerik gabekoei ostatu ematen

1986an, gaur egun dagoen leku berean sortu zuten egoitza, kalean bizi ziren herritarrentzat

I. Urkizu Tolosa

Mende laurdena beteko du, datorren datorren urriaren 4an, ABEGIk. «Tolosan noraezean zebiltzan hainbat lagun errealitate ikusita» sortu zen erakundea.

Tolosako Udalak, elizak eta norbanakoek laguntza eskaini zuten garai hartan, gaur egun ere Agintari kaleko 7. zenbakian jarraitzen duen aterpea martxan

jartzeko. Orduz geroztik, 10.000 lagun baino gehiagok hartu dute ostatu bertan.

Boluntarioen laguntza

Egoitzako arduradunek, boluntarioen laguntza izaten dute, eta bertaratzen direnek «duintasunez» garbitzeko, afaltzeko, lo egiteko eta gosaltzeko aukera izaten dute.

Hau guztia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin eta hainbat enpresek emandako elikagaiei esker burutzen dute, eta gizarteratzera bideratutako pisu bat ere badute 3 lagunentzat, Tolosako erdigunean. Udalak utzitakoa da, eta Foru Aldundiaren laguntza jasotzen dute gastuetarako.

Iragarki laburrak

LAN BILA

■ **Garbitzailea.** Tolosaldeko emakume euskaduna naiz. 55 urte ditut. Lan egingo nuke 4 edo 6 orduz, goizez edo arratsalde, denda, taberna edo etxeak garbitzen (adinekoak edo haurrek zaintzen ez dut aritu nahi). Au-

toa badaukat. Nirekin harremanetan jartzeko, deitu 685 73 60 09 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria.** Zerbitzari lanetan eskarmetua duen neska gazte euskalduna naiz. Asteburuetan lan egiteko prest nago. Interesaturik, deitu 645 71 52 28ra.

SALGAI

■ **Garajea.** Tolosako lurte auzoan 16 metro karratuko garaje itxia dago salgai. Interesadutenean, 660 798 685 (goizez) edo 634 495 925 (arratsaldean) telefono zenbakietara dei dezakete.



IRIARTE

BIHARTIK AUERRERA BERRIRO ERE IREKITA

Pedro Mari Otaño plaza, 1 • ZIZURKIL • 943 692 537



Herriko dantzari txikiek saioa egin zuten atzo eguerdian, Iruran. E. MAIZ

Sanmieletan, bete-betean

Iruran eta Aldaban santuaren eguna ospatu zuten atzo; besteak beste, hamaiketako egin zuten bi herrietan

Imanol Garcia

San Migel eguna ospatu zuten atzo Iruran eta Aldaban. Iruraren kasuan, festaren erdi-erdian daude, eta Aldaban, hasierako eguna izan zen. Iruran dantzari txikiek jarri zuten giroa eguerdian. Meza-aren ondoren egin zuten saioa. Hori eta gero, hamaiketako hartu zuten herriarrek.

Aldaban ere hamaiketako ez zuten huts egin. Gainera, aurten Intxur elkarte berrian egin zuten lehenengo aldiz. Aurreko urteetan frontoian egiten zuten. 40 la-

gun inguru elkartu ziren. Gaueko herri afarian, Intxur elkartekoek prestatutakoan, 60 lagun inguru espero zituzten. Horregatik, elkartean egin beharrean, frontoian egitea erabaki zuten. Aitziber Emanoalde Aldabako trikitilariak jarri zuen giroa.

Festa ez da amaitu

Gaur, Iruran, haurrentzako hainbat gauza izango dira arratsaldean: kale antzerkia Irrien Lagune-kin eta buruhandi eta erraldoiekin kalejira. Gauean, besteak beste, Play Back jaialdia egingo dute.

Biharko eguna ekitaldiz beteta egongo da. Eguerdian, esaterako, dantza soka egingo dute, eta ondoren, herri bazkaria. Gauean, bi kontzertu izango dira: Atila y los Unos eta Laket. Herensugearen erretzea gauerdian egingo dute.

Asteburuan jarraituko du festak Aldaban hainbat ekitaldirekin. Auzotarrek bihar izango den antzezlan nabarmendu dute, aurretik ez baitute horrelakorik izan festen egitarauan. *Klownstrofobia mendian* izeneko obra antzeztuko du Zurrumurru antzerki taldeak. Gauean zahagi ardoan, 120 lagun izango direla espero dute.

Etzi, igandea, ez da ohiko txirrindulari probarik izango. «AHTko obrak direla eta, bertan behera utzi dugu aurten», azaldu dute Aldabako auzotarrek. «Laz egin genuen, eta esan ziguten txukun utziko zutela bidea, baina ez zuten bete esandakoa». Aurten, probaren ordez, pilota partidak izango dituzte. Herri bazkarian 140 lagun elkartuko dira frontoian, eta ondoren herri kirolak izango dituzte.



Aurten, Aldaban, San Migel eguneko hamaiketako Intxur elkartearen egin dute. I. GARCIA

Eskualdeko lau pilotari ariko dira Lau t'erdikoan

Aspetik Barriola, eta Asegarcetik Bengoetxea VI.a, Olaetxea eta Saralegi, ariko dira txapelaren bila

I. Garcia

Lehen eta bigarren mailako lau t'erdiko txapelketa aurkeztu dute, eta eskualdeko lau pilotari daude maila nagusiko txapeladun izateko hautagaien artean. Bi lei-

tzar, Aspe enpresako Barriola eta Asegarcetik Bengoetxea VI.a; eta Asegarcetik Olaetxea lizartzarra eta Saralegi amezketarra dira lehian ariko diren pilotariak. Hauetatik txapela jantzi duen bakarra Barriola da, 2001ean, Eugiri irabazita. Lehen mailako txapelketa urriaren 7an hasiko da.

Bigarren mailakoan Leitzaldeko bi pilotarik hartuko dute parte: Olazabal aresoarrak eta Jaunarena leitzarraz, biak Aspe enpresakoak.

Pilota partida ugari eskualdeko frontoietan

I. Garcia

Pilotariak aurtengo denboraldian erabat murgilduta daude. Horren adibide da asteburuan izango diren partidak. Horien artean, eskuzkoan, gaur bi partida izango dira Ikaztegieta, Ezker Hormako Gipuzkoako Txapelketaren barruan. 19:00etan hasita, Intxurre-Ataun ariko dira, eskuz banaka, kadete mailan; ondoren, Intxurre 2-Aurrera Saiaz 2, binaka lehen mailako jubeniletan. Ordu berean, Alegian, beste partida bat: Intxurre-Mundarro 1, bi-

naka hirugarren mailako kadete-etan.

Emakumeen Gomazko Paleta Txapelketa, bi partida izango dira gaur ikusgai eskualdean, jubenil mailan, 19:00etan: Anoetan, Su Berri 1 eta Su Berri 2 artekoa, eta Alegian, Intxurre 1 eta Intxurre 2 artekoa.

Zesta puntari dagokionez, Tolosako Beotibar pilotalekuan, bihar, 16:00etan, Gipuzkoako Txapelketako bi partida ikusgai izango dira kadete mailan: Beotibar 1-Donostia 2, eta Betibar 3-Danok Bat 1.


→ Laburrak

Ibilgailuen sarreraren tasa bihartik kobratuko dute

IBARRA ▶ Ibarako Udalak jakinarazi duenez, bihartik aurrera eta urria bukatu arte, ibilgailuen sarrerari dagokion tasaren ordainagiriak kobratzen hasiko dira. Epe hori amaitzean, bide exekutiboz kobratuko dira eta %20aren gainkargua ezarriko zaio.

Gripearen txertoaren kanpaina abian da

IBARRALDEA ▶ Gripearen aurkako txertoa ematen ari dira hainbat herritan, aldezturik ordua eskatuta. Elduan, gaur, 13:00etan; Berrobin, urriaren 1ean eta 4ean, 09:00etan; Txaraman, urriaren 5ean, 09:00etan; Belauntzan, urriaren 6an eta 20an, 08:30etan; Olexan, urriaren 6an, 09:00etan; Leaburun, urriaren 7an, 09:00etan; eta Gaztelun, astelehenero, 09:00etan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Abendurako frontoiak barrutik eta kanpotik itxura berria izango du

Hasi dituzte frontoia berritzeko lanak; paretak eta teilatua berritu, eta irekitako zatia itxi egingo dute

Eneritz Maiz Alkiza

Urteak zeramatzan Alkizako frontoiak berritu beharrean. Azken aldiko egoera kaxkarra ikusita, udalak konpontzea erabaki du. Diru laguntza nahi adinako ez izan arren, konponketa nagusienak egitea erabaki dute. Kostuaren erdia udalak jarri beharko du.

Festak bukatu eta hurrengo egunean hasi zituzten obrak, eta bi hilabete eta erdian bukatzea aurreikusten dute. Guztiz zaharkitua zegoela adierazi du Jon Umerez alkateak, «paretak eta teilatua berritu beharrean zeuden, eta aspaldian pintatu gabe zegoen. Inoiz ez zen nahi adinako diru laguntzarik egokitzen, baina azkenean, beste aukerarik ez dugu izan eta 25.000 euroko laguntzarekin aurrera egin dugu». Inguruko frontoirik onenetakoa izan zela ere gogora ekartzen du.

Euria ez sartzeko itxitura

Barruko paretak konponduko dituzte, eta era berean teilatua, sabai eta urak jasotzeko ubideak ere bai. Albo bat irekia du frontoiak, eta euria sartzen zen. Konponketa hauekin, kristalez goitik



Kolore urdinez pintatzea erabaki du kirol batzordeak. E. MAIZ



Arkuak, kristalez goitik behera itxiko dute euria ez sartzeko. E. MAIZ

behera itxi egingo dute. Pilotalekuak atzeko aldean eranskina du. Teilatua, egoera txarrean aurkitzen da, eta zati hori ere berritu egingo dute.

Azken aldian modan jarri da frontoiak urdinez pintatzearena, eta Alkizakoa ere horrela pintatuko dute. Jon Umerezek gogoratu du, «erabakiak elkarlanean hartu dira kirol batzordean, bai konponketarekin, eta baita kolorearena ere».

Barruko eserlekuak momentuz konpondu gabe geratuko dira eta «oraindik ez dugu ezer hitz egin, baina auzolanean edo eazerbait egiten dugun» gaineratu du Umerezek.

→ Laburrak

Txekorra burruntzian erretzeko jendea behar da

IKAZTEGIETA > Urriaren 8an ospatuko den Euskal Jaian bazkaltzeko txekorra burruntzian erreko dute. Gau osoan eduki beharko da txekorra erretzen, eta horretarako ezinbestekoa izango da herritarren laguntza. Txandak antolatuko, bilera egingo dute urriaren 3an, astelehenean, 21:00etan. Udaletxean elkartuko dira.

Elkartasun erakusketa zabalik, Iriarte etxean

ZIZURKIL > Iriarte etxean herri-tarrek egindako artisau lanen erakusketa egongo da gaurtik urriaren 16ra bitarte. Elkartasun erakusketan salmenta ere egongo da. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara ere irekita egongo da, eta igandean eguerdian bakarrik zabalduko ditu ateak. Azokaren egunean, urriaren 16an, goizez eta arratsaldez irekiko dute.



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Mahala

bi sorta

• Agustin Agore (Tolosa)

Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24



2 Pagoa

Euskal Herri berriko garagardoa

Oiartzun
Tel.: 34 619-42 11 53
www.pagoabeer.com
www.euskalherrikooplaza.com/pagoa




• Axun Alkorta (Tolosa)
• Lierni Iruretagoiena

3 Donostiako Aquariuma

3 lagunentzako bina sarrera

• Edurne Zuriarrain (Abaltzisketa)
• Arantza Mujika (Anoeta)
• Maria Jesus Aranzabe (Tolosa)



www.aquariumss.com

4 TTAk

bi elastiko*

• Elena Alustiza (Alegia)
• Ainara Apeztexea (Ibarra)

www.euskalherrikooplaza.com



harpidedun **TXOKOA hitza** info



HITZA

Jone Gorostarzu eta Olatz Etxeberria ► Antzezleak

Berastegiko antzerki taldeko bi kideek emanaldia eskainiko dute Tolosako kultur etxean gaur, 22:30etik aurrera; bi txikiteroren istorioak kontatuko dituzte, umorez betetako obra batean.

«Askotan guri ere kosta egiten zaigu barreari eustea oholtza gainean»

Asier Imaz

Antzerki Zikloiaren emanaldi berri bat egingo da gaur Tolosako kultur etxean, 22:30ean. Jone Gorostarzu (Berastegi, 1984) eta Olatz Etxeberria (Berastegi, 1985) umorezko obra bat eskainiko dute bertan. Berastegiko antzerki taldeko kideekin batera, Jon Magik irurarra eta Tolosako antzerki tailerreko kideak egongo dira. Aurkezle lanetan, kaba-ret ukitua jarriaz, Suyanema ariko da.

Bi txikiteroren historia kontatuko duzue. Nondik sortu zitzaizuen ideia hau?

Olatz Etxeberria: Asvineneako lehiaketarako prestatu genuen

2010ean, eta finalera iritsi ginen. Cafe Frontoian dago kokatua, eta krisi garaian bi txikiteoren istorioak kontatzen dira. Alde bateatik, txikitero izaten jarraitu nahi dute, eta bestetik, dirua aurreztu. Hoberena zera da: benetan gertatu edo egin ditugun gauzak kontatzen ditugula.

Bakarrizketak ere egiten dituzue. Nola sartu zineten antzerki munduan?

Jone Gorostarzu: Duela 8 edo 9 urte, begirale ikastaro bat egin genuen, eta antzerkia landu genuen. Gero, Berastegiko jendearekin hitz eginda, antzerki taldea osatu genuen. Orain, urtean emanaldi bat edo bi ematen ditugu herrian.

Beti umorearekin jolasten al duzue?

O. E.: Bai. Probatu izan dugu umorea ez den beste zerbait egiten, baina jendea aspertu egiten da.

J. G.: Berastegiko publikoa umee-tatik hasi eta aiton-amonetaraino iristen da. Herrian asmatzeko errazena umorea erabiltzea dela uste dut.

Zailena ere hori omen da, zein da zuen sekretua?

O. E.: Eroarena egitea. Orduan eta ieuuup! gehiago bota, hobeto, gero hikaz egitea...

J. G.: Baserritarrarena eta gizona-rena egitea... Guk ere ondo pasatzen dugu: askotan, baserritarrez jantzen garenean eta elkar begiratzean, barreari eustea kosta egiten zaigu.

Irudia ► Ikaztegieta



AHT-REN LANAK IKUSTEN

Europar Batasuneko ordezkaritza batek, Carlos Secchi buru zuela, AHTren lanak ikuskatu zituen atzo Iñaki Arriolarekin, Eusko Jaurlaritza-ko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailburuarekin, batera. Eskualdeko zatia helikopteroz ikusi zuten, eta ondoren, Ikaztegieta-ko zatian hartu zuten lurra, obrak bertatik bertara ikusteko. A. IMAZ

► Laburrak

Bihar eta etzi 'Sua' filmaren irudiak, Subegin

IBARRA ► Subegi Kultur Elkarte-
an, *Sua* pelikulako toma fal-
tsuak botako dituzte larunbate-
an eta igandean, 19:00etan.
Elkartearen ateak zabalitzen
diren honetan, Eneko Aritzaren
Lagunak taldeko kideek euren
azken lanaren irudiak jarriko
dituzte ikusgai. 20 minutuko
emanaldia izango da, eta talde-
ko kide zein herritarrak gonbi-
datu dituzte bertara.

Urkizuko auzotarrak Urbia-joango dira bihar

TOLOSA ► Urkizuko auzotarrak
itearra egingo dute bihar, urriak
1, Urbia-joango dira. Iragan astean paella
jateko elkartu ziren Alur Txiki
elkartean. Elkarrekiko harrema-
nak lantzen jarraitzeko, Aizkorri
magalean aurkitzen den Urbia-
joango dira.

Ara Malikianen kontzertua gaur Leidorren, 20:30ean

TOLOSA ► Ara Malikian biolin
jole armeniarak kontzertua
eskainiko du gaur Leidorren,
20:30ean. Berarekin batera,
Javier Egozkue gitarrista, Moi-
ses Sanchez piano jolea, Migel
Rodriguez kontrabaxua eta Mar-
tin Bruhn perkusio jolea ariko
dira. Jazza eta tangoa elkartuko
dira emanaldi honetan. Hala
eta guztiz ere, oinarrian Ara
Malikianen azken lana egongo
da: *Con los ojos cerrados*
(*Begiak itxita*). Javier Egozkuek,
bere aldetik, argentinar kutsuko
doinuak zabalduko ditu Leidor
aretoko oholtza gainetik.

NKDM erakusketa Gko Galleryn, arratsalde

TOLOSA ► NKDM erakusketa
zabaldu dute Gko Galleryn.
Erakusketa urriaren 26ra arte
egongo da zabalik, Kale Nagu-
siko 4. zenbakian. Ordutegia,
17:00etatik 20:00etarakoa
izango da.

Bertako informazioari
bertako produktuak

Egin HITZAren
harpidedun

urriaren 31 baino lehen
eta jaso

artxai gazta,
Idiazabal
jatorri izenarekin,
OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean,
azaroaren 2an,
asteburu bat zotz egingo dugu
Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.

Xabier Artola Zubillaga • Idazlea

‘Argi-itzalen neurria’ liburua argitaratu berri du Xabier Artolak. Zortzi ipuinez osatu du lana, eta azken ipuina ez gainontzeko guztiek ipuin lehiaketaren batean saria jaso dute.

«Donostia Hiria sariak animatu ninduen liburua argitaratzera»

Eneritz Maiz Alkiza

Alkizan bizia da Xabier Artola Zubillaga (Donostia, 1957). Jule-ne Azpeitia, Tene Mujika, Augustin Zubikarai edo Donostia Hiria ipuin lehiaketetan sariak jasotzen ohiuta dago. Orain, ipuin horiek bildu, eta *Argi-itzalen neurria* (Elkar) liburua argitaratu du.

Ipuin lehiaketa ezberdinetan saritutako ipuinekin liburu bat argitaratu berri duzu. Nola animatu zara pausu hori ematera?

Batez ere Donostia Hiria lehiaketa irabazi nuenean izan zen. Horrek animatu ninduen. Egia esan, lehenagotik ere hasia nengoan bilduma bat prestatzen, baina ez nintzen animatzen. Uste dut azkeneko bultzada eman zidala sariak. Elkar argitaletxetik ere berriro argitaratzeko eskaintza iritsi zitzaidan, eta orduan esan nion nire buruari oraingoan egin behar nuela.

Argi-itzalen neurria izena jarri diozu. Zerdela eta?

Hasieran nire asmoa Latituea izena jartzea zen. Bertako ipuin baten izenburua da, eta liburuaren izenbururako hori erabiltzea pentsatu nuen. Baina argitaletxean ez zeuden oso konbentzituta izen horrekin. Nahiko iluna edo ulertzeko zaila iruditu zitzaion. Azken finean, argi-itzalen neurria latituearen azalpen moduko bat da. Ipuin horretan aipatzen

den latituea ez da latitude geografikoa, baizik eta, argazkigintzako kontzeptu bat da. Esposizio latituea da, eta nik ipuinean metafora gisa erabiltzen dut. Zenbait harremanen zailtasunen metafora bezala edo.

Eta zer da esposizio latituea?

Argazkigintzan, irudi batean dagoen punturik argienaren eta ilunen arteko distantzia moduko bat da. Diafragmatan neuritzen da, eta nolabait horren azalpena hori da argi-itzalen neurria. Latitueak baino kutsu poetikoagoa ere bazuela iruditu zitzaigun, eta azkenean horrekin geratu da.

Liburuan zortzi ipuin bildu dituzu. Ipuin solteak izan da, nola osatu edo lotu duzu?

Ipuin solteak ziren, eta garai batean ere argitaratzeko unean nire kezka handiena horixe zen. Duela urte batzuk ez zegoen oso boldera ipuin solteak argitaratzea, beti lotura bat izan behar zutela esaten zen. Orain uste dut, berriz bueltatu dela ipuin solteen ideia, eta gehiago argitaratzen dira ipuin solteen bildumak. Baina, loturak beti daude, eta nire buruan daudenak noski hor egongo dira. Liburuari batasun bat emateko beste ipuin berezi bat idatzi dut, eta liburuan azkenean datorrena da. Eta tituluak berak esaten du, zinean bezala, *making of* a da. Ipuinei buruzko ipuina bezalako zerbait da.

Beraz azken ipuina lehiaketa batean aurkeztu gabea edo argitaratu gabea litzateke.

Hori da. Batzuk argitaratu gabe daude, eta besteak lehiaketetako argitalpenetan argitaratu dira, baina hori guztiz berria da. Gainera, azkena irakurtzekoa da. Beste ipuinetan agertutako pertsonaiak azaltzen dira, eta berezi xamarra da.

Estilo antzekoa al dute ipuin guztiek?

Ez. Estilo aldetik ere nahiko ezberdinak dira. Erronka bezala ere planteatu izan dut. Normalean ipuina buruan dudanean estiloa bilatzen diot. Elkarrizketari pisua eman nahi diodanean, elkarrizketetan oinarritzea, edo beste batean barne gogoetak,... estilo aldetik nahiko ezberdinak direla esango nuke.

Liburua hartzean zer irakurriko du irakurleak?

Denetik dago. Gehien interesatzen zaidana pertsonen arteko harremanak dira, eta harremanak agertzen dira ipuinetan. Gai sozialagoak ere badaude, eta nola edo hala hiru ipuinetan gerra ere azaltzen da. Gizakiarengan gerrak uzten duen arrastoa eta ondorioak, esaterako. Immigrazio ere aipatzen da, maitasuna, barkadarea, bikotea,... horiek dira gaiak.

Zergatik ipuinak?

Inoiz ez zait pasa burutik nobela bat idaztea. Irakurle bezala ere,



E. MAIZ

ipuinak asko gustatzen zaizkit. Oso formatu polita dela iruditzen zait, istoria trinko eta kondentsatu bat 20 edo 25 orrialdetan ematea. Ez dira hain laburrak,ertainak dira. Idazle bezala ere, alde horretatik jotzen dut. Bestalde nahiko perfektionista ere banaiz, eta inori erakutsi baino lehen, testuari buelta asko ematen dizkiot. Agian formatu laburrera edo istorio laburretara jotzeko arrazoietako bat hori izan daiteke.

Liburua argitaratzearekin, urteetan egindako lana bukatutzat bezala ikusi duzu?

Liburuarekin ez dut ikusten epe baten bukaerarik. Nik neure burua hemendik aurrera ere antezera ikusten dut. Idazteko beharra sentitzen dudanean edo zerbait bururatzen zaidanean idatzi egin-

go dut. Ez dut ikusten fase baten bukaera edo beste baten hasierarik, oraingoz behintzat ez.

Liburu hau argitaratu duzu, orain besterik baduzu esku artean?

Momentuan baditut bizpahiru ipuin lehenagotik idatzita edo bukatu gabeak hor utzita. Agian egunen batean berriz ere hartuko dut horietakoren bat. Bestela oraintxe ez daukat ezer berririk esku artean.

Orain irakurleen esku geratzen da.

Azkenean idazten duenak bere testuak argitaratzea erabakitzen duenean, besteengan zer sortzen duen edo jakin nahi du. Testuen edo istorioengan zein iritzi duten, edo zerbait sentitu ote duten jakitea interesgarria da. Hori ez da erraza, baina nik jendea irakurtzera animatuko nuke.

Hilberriak



MARCELINO URKIZUBERAZA ✝
jauna

2011eko irailaren 28an hil zen, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedelkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere gurasoak: Nikasio (†) eta M^{re} Rosario (†); anai-arrebak: Joxemari eta Dina Leunda, Agustín, Begoña, Juan Jose eta Edurne Mujika, Milla eta Miguel Olarvide, Ramon eta Arantxa Balerdi, Ana eta David Elola; ilobak: Olaia eta Arnaiur, Iker, Ion, Mikel eta Maitane, Aitzol, Oihana eta Julen, Egoitz, Oier, Andoni; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde, otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR OSTIRALA arratsaldeko ZAZPIETAN Anoetako SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Anoetan, 2011ko irailaren 30a

Helbidea: Etxeberri baserria.

Oharra: Gorputz beila Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da, GAUR OSTIRALA, goizeko 10:30ak arte.

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Auzolanaren bidez egungo egoerari aterabidea nola eman aztertuko dute

I. Auzolan Topaketak antolatu dituzte, gaur hasi eta igandera bitarte; 150 lagunek eman dute izena

Erredakzioa

Euskal Herrian Auzolan ekimenak bultzatuta, gaurtik igandera bitarte I. Auzolan Topaketak burutuko dira Usurbilen. Egungo gizarte ereduak «beharrizanak asetzen ez dituela eta jendartearen bizi-baldintzak geroz eta kaskarragoak direla ikusirik», bestelako eredu baten alde lanean hasa-ko helburua du.

Auzolana egun bizi dugun zibilizazio eta ekonomi krisiari aurre egiteko «bitarteko egokia» dela uste dute antolatzaileek. Halaber, auzolanak eta herrigintzak «berebiziko garrantzia» izan dutela herri garapenean gogoratzen dute, eta egun «premia are eta nabaria goa da». Topaketen bitartez, Auzolanaren inguruko esperientziak bildu nahi dituzte, hausnarketa bultzatu eta etorkizuneko



I. Auzolan Topaketen antolatzaileak ekimenaren aurkezpenaren. HITZA

lan ildoak proposatu. Horretarako, hiru egun iraungo duten topaketetan hamaika ekintza izango dituzte. Gaur arratsaldean hitzaldiak izango dira krisiari buruz, herri garapenari buruz eta Kata-luniako Kooperatiba Integralari buruz. Bihar, kultura, energia, hezkuntza, ura... bezalako gaiak jorratuko dituzte taldetan banatuta, eta etzi, Gorka Pinillos, Auzolan ekimeneko kidearen Auzo-

lanaren Kultura liburua aurkeztuko dute, Sutegi kultur etxean, 11.00etan, eta Auzolan Sarearen eratzeaz ariko dira.

Horrez gain, kantaldi, kontzertu eta afari eta bazkariak osatuko dituzte topaketak.

Auzolanean aritzeaz interesa duen orori irekiak izango dira topaketak. Informazio gehiago nahi duenak, www.aulolan.info webgunean jaso ahalko du.

Aurrera elkartearen egun handia izango da bihar

Goizean goizetik gauera arte festa giroa nagusituko da herrian; kirola, dantza, musika eta bazkaria izango dira

Erredakzioa Leitzza

Aurrera Kirol Elkartek bere eguna ospatuko du bihar. Elkar-tearen barruan arlo desberdinetako kirolak eta dantza biltzen dituzte, eta biharko jai egunean guztien erakustaldia egingo dute. Hain zuzen ere, bosgarren urtez zabalduko dute herrian jai giroa dantzari, pilotari, futbol jokalarinahiz zaldunek.

Goizean goiz, 09:00etan ekingo diote festari. Ordu horretan txistulariak izango dira herritarrei festara irteteko diana joko dutenak. Goiz osoan zehar, gaztetxoek gozamenarako rokodromoa eta tirolina jarriko dituzte, eta zaldi

gurdian ibilalditxoak egiteko aukera ere izango dute. Gainerakokontzat ere izango da zer ikusia. Izan ere, pilotariak eta dantzariak ariko dira plazan, eta tartean txaranga doinuak ere bai, giroa alaitzeko.

Bazkariaren uea etorriko da ondoren. Bertarako txartelak Torren eta Peritzan daude salgai, 18 eurotan bazkideentzat eta ez bazkideentzat 25 eurotan. 65 urtetik gorakoek doan dute bazkaria. Bada, festak ederki jan ostean ere jarraituko du. Batetik bazkideek Ingurutxo dantzatzeko dute, ondoren futbola izango da, eta iluntzean luntxa eta musika.

Kirol elkarteak kide guztiak izango dute lekua biharkoan, eta modu batera ez bada, bestera, parte hartzeko aukera luzatzen dute. Gainera, dei berezia luzatzen diete leitzarrei, blusa beltza soinean jarri, eta honi, Aurrerako ikurra gehitzeko.

• leitzaldea@hitza.info



Pasa den urteko Aurrera Eguneko une bat. I. GARCIA

↓ V. Aurrera Eguna

EGITARAUA

- 09:00. Txistulariekin diana.
- 11:00etatik 13:00etara. Haurrentzat rokodromoa, tirolina eta zaldi ibilaldia plaza inguruan.
- 10:00. Aurrerako 'juegos deportivos' eskutik futbito partida plazan.
- 11:00. Aurrera pilota eskolako pilotarien saioa plazan.
- 12:00. Aurrerako Dantzarien dantza saioa plazan.
- 13:00. Incansables txaranga-ekin poteoa.
- 14:30. Aurrerako bazkideen bazkaria Karapen.
- Bazkalostean. Bazkideen ingurutxo.
- Ondoren. Incansables txaranga-ekin eta buruhandiekin poteoa.

- 16:30. Futbol partida Arkiskilen: Aurrera KE - CD Amigo.
- 21:30. Luntxa Aurrera elkartearen egoitzan eta festarekin jarraitzeko Jose Mendizabal gizon orkestra Aurrerako atarian.



Rokodromoan iazko festan. IG

Mikel Ozaita • Auzolan Topaketetako antolatzailea

«Euskal Herriko auzolan ekimenak bildu nahi ditugu»

I. Terradillos Ibarra

Mikel Ozaita ibartarra gaur Usurbilen hasiko diren topaketetan antolatze lanetan ari da. Euskal Herrian ekimen asko gauzatu direla auzolanaren bidez eta egun ditugun beharrei beste irteera bat emateko irtenbidea izan daitekeela dio.

Zer da I. Auzolan Topaketekin lortu nahi duzuen?

Euskal Herrian auzolanaren inguruan dauden ekimenak bildu nahi ditugu, eta auzolanaren inguruan, modu integralean, hausnarketa egin. Bizi dugun krisialdi ekonomikoa aintzat hartuta, eta gizartea bera ere krisian dagoenez, alternatibak eraiki behar ditugula iruditzen zaigu. Hainbat arlo ditugu aztertzeko: ura, energia, hezkuntza, euskalgintza...

Zerda auzolana?

Kontzeptu eta praktika historikoa da auzolana. Behar batetik abiatuta, helburu batzuk lortzeko egiten den talde lana da. Gure-

an, askotan erabili izan da, bai herri txikietan bai eta handietan ere. Ikusi dugu, baita ere, Frantziakoaren ondoren, ikastolen sorreran, edo herri txikiak festak antolatzeko garaian, edo beste ekimen asko auzolanetik sortuak izan direla. Ekonomikoki dirua lortzeko edota proiektuak aurrera eramateko egin dira.

Euskal Herriko auzolan sarea osatzeko asmoa duzue.

Euskal Herriko ekimen guztien lotura puntua izatea nahi dugu. Nolabait guztiak bildu nahi ditugu, eta koordinatu. Hori izango litzateke sarearen asmoa. Halaber, esperientziak elkarbanatzeko gunea ere izango litzateke.

Zein gizartejarriko zenuke auzolanaren eredu bezala?

Zapatistek egindako mugimendua aipatuko nuke eredu gisa. Azken batean, beraiek sortu dute komunitatea egituratzeko modua, eta horren barruan, emakumearen parte hartzea sustateko bitartekoak, hezkuntza...

150 lagunek eman dute izena topaketetan parte hartzeko. Horrelako harrerarik espero al zenuten?

Azken urtean, esaterako, elikadura subiranotasuna lortzeko helburuarekin Gipuzkoan talde pila bat sortu dira, horietako bat Tolosan. Ikusten da, beraz, beharra dagoela, eta ekimen berriak ari direla sortzen. Krisi egoera honetan, geroz eta beharrezkoago ikusten da herritarrek beren alternatibak eraikitzea. Izan ere, merkatuak ez ditu gure behar guztiak asetzen.

Nolako jendeak hartuko du parte?

Herritar orori dago zabalik, bai norbanako bai eta eragileei ere.

Auzolana bultzatzen dute hainbat erakundeetan, esaterako.

Bai. Guk badakigu udal batzuetan, adibidez, auzolande- gariak martxan daudela. Erakundeak ez ditugu leihakide bezala ikusten. Udal batek herritarrekin auzolana bultzatu nahi izatea, oso positiboa iruditzen zaigu.

• ibarraldea@hitza.info



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leizaldekoko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurak



Urte askoan!

Oinatz Goñi Balerdi (Armezeta).
Bihar 3 urte!

Zorionak eta muxu asko familia
guztiairentzat.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurak

Agenda

DEIALDIAK

- **Ikaztegieta.** Herri eskola berriaren ate irekiera ekitaldia gaur, 16:30etik aurrera.
- **Tolosa.** Minbiziaren Aurkako Elkarrekin erretzeazko taldeetan izena eman daitekeela azaldu du. Gaur da azken eguna, eta horretarako 943 45 77 22 telefono zenbakira deitu behar da edo gipuzkoa@aec.es helbidera idatzi.
- **Berastegi.** Lehen herri batzarrak gaur, 21:00etan Muñagorri eskolako ganbararen.
- **Tolosa.** Gorputza eta zentzuak izeneko afrikar dantza ikastaroa burutu ahal izango da Bonberenean. Falilou Diagne eskainiko du urriaren 1ean hasi eta ekaina bitartean. Izena eman eta harremanetarako 645 718 173 eta 698 591 461 telefono zenbakietara deitu edo falilou.diagne@gmail.com eta amaia_pagola@hotmail.com helbideetara idatzi.

JAIAK

- **Irura.** San Migel jaien barruan, gaur, 17:00etan *Irrien lagunekin kanta eta dantza* izeneko kale antzerkia; 19:00etan kalejira buruhandl eta erraldoiekin, eta Loatzo musika eskolako txistulariekin, ondoren txistor jatea Share elkarrearen eskutik; 22:30ean play back jaialdia; eta 24:00etan dantzaldia Egan taldearekin eta Dj Bull-ekin Gazte Asanbladaren karpan. Larunbatean 11:00etan molgo grand-prix karrerak Etxezarreta kalean; 11:00etan haur parkea eta puzgarriak Loatzo plazan; 13:30ean sokadantza; 14:30ean herri bazkaria; 15:00etan haur parkea eta puzgarriak Loatzo plazan; 18:00etan poteoa Jainekin txarangak giroa;

23:00etan kontzertua Atila y los Unos taldearekin; eta 24:00etan herensugearen erreteza; eta ondoren dantzaldia Laket taldearekin.

■ **Aldaba.** San Migel jaien barruan bihar, urriak 1, 17:30ean txokolate jatea eta arte tailerra haur eta helduentzako; 19:30ean *Klownstrofobia mendian* emanaldia Zurrumuru antzerki taldearen eskutik; 21:00etan zahagiardoa pilotalekuan; eta 23:30ean erromeria Elustondo anai-arreben trikiti doinuekin. Igandean, urriak 2, 11:00etan meza nagusia; 12:00etan pilota partidak; 13:00etan toka txapelketa; 14:30ean herri bazkaria eta ondoren, Gabiriako bertsolari eta trikitalari gazteak; eta 18:00etan herri kirol saioa.



AZOKAK

- **Belauntza.** III. Merkatu Txikia etzi, urriak 2, 10:30etik 14:00etara. Azoka eta gero herri bazkaria ere egingo dute.

ZINEMA

- **Tolosa.** Bihar, urriak 1, *El hombre de al lado* filma 19:30ean eta 22:30ean. Etzi, urriak 2, *Kung Fu Panda 2* filma 17:00etan, eta *Principiantes* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen eguna, *El hombre de al lado* ikusteko aukera egongo da 20:30ean.

MUSIKA

- **Tolosa.** Ara Malikian eta Javier Egozcue boskotearen *Con los ojos cerrados* ikuskizuna gaur, 20:30ean Leidorren.
- **Tolosa.** Etzi, urriak 2, Hodiartz Abesbatzak EHU abesbatzarekin batera kontzertua eskainiko du San Frantzisko elizan 19:30ean.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Makina/Tu* erakusketak Aranburu jauregian azaroaren 5a bitarte. GKO Gallery & BOX. A arte elkarrekin antolatuta dute erakusketak udalaren laguntzarekin.
- **Tolosa.** Tolosagaskak urtero prestatzen duen egutegiko argazkien erakusketak Aranburu jauregian.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA



San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com



XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

Zein da XIV. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi

argazki finalistetatik gehien gustatzen zaizuna?



Eman zure bozka, harpidedun!

(argazkiak ikusgai webgunean)

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

Deitu **943 65 56 95**

telefono zenbakira edo idatzi,
thargazkiak@hitza.info-ra